BESTELAKO XEDAPENAK

SEGURTASUN SAILA

1690

EBAZPENA, 2013ko martxoaren 19koa, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako zuzendari nagusiarena, Bilboko Administrazioarekiko Auzien 6 zenbakiko Epaitegiak bideratu duen administrazioarekiko auzi-errekurtsoan (2/2013-A prozedura laburtua) interesdun izan litezkeenak deitzen dituena.

Goian azaldutako administrazioarekiko auzi-errekurtsoa (2/2013-A prozedura laburtua) Herrizaingo, Justizia eta Herri Administrazio sailburuaren 2012ko urriaren 4ko Aginduren kontra jarritakoa da, Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordearen 2011ko apirilaren 4ko Ebazpenaren kontra jarritako gora jotzeko errekurtsoa onartezina dela ebazten duena. Ebazpen horren bitartez Ertzaintzaren Ikuskapen Eskalako Herritarren Segurtasuneko Ofizialondoko kategorian karrerako funtzionario izendatzen dituen 2011ko martxoaren 28ko Ebazpena Euskal Herriko Polizia Ikastegiko iragarki-oholean jarri deneko data jakinarazten da. Eta, Bilboko Administrazioarekiko Auzien 6 zenbakiko Epaitegiak espedientea bidaltzeko eskatuta, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 49.1 artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorriz, aipatutako prozeduran interesdun izan litezkeenei dei egiten zaie, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian ebazpen hau argitaratu eta hurrengo egunetik hasita bederatzi eguneko epearen barruan ager daitezen prozeduran; eta hala, egoki baderitzote, euren legezko interesen alde egin ahal dezaten.

Arkauti, 2013ko martxoaren 19a.

Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako zuzendari nagusia,
MALENTXO ARRUABARRENA JULIÁN.